

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure bezeroak ezagutzeari garrantzi handia ematen diogu gure enpresan. Haien gustuak, beharrak... ezagutzea.

Horretarako haiekin harremanak sortzea oso garrantzitsua dela uste dugu beraz, urteetako egun zehatz batean festak egingo ditugu, ez bakarrik guk haiek ezagutzeko baizik eta haien artean ezagutu daitezen. Urtarrilean, ekainean eta irailean izango dira festa horiek. Urtarrilean urteari hasiera emateko. Ekainean berriz udararen hasiera eman dezagun eta azkenik iraila oporretei bukaera bat emateko. Gainera geure kotxeak berrikuntzarik izeten dituenen bezero guztiak elkartuko ditugu dena behar bezala azaltzeko.

Fisikoki izan arren harreman horiek lan-orduetan zehar telefonoa izango dugu prest haien kezka edo esan beharrak adierazteko eta 24 orduko korreoa zabalik izango dute nahi dutenean, non pertsona bat egongo da momentuan erantzuteko eta gauetan zerbat jasotzen badugu korreoa erantzuteko gure IA-ren laguntza izango dugu bezeroa itxoin ez dezan. Nahiz eta beharrezkoa ez den izango erreklamazio orriak izango ditugu eta hitz egiteko aretoak ditugu bezeroak etor daitezen nahi dutenean.

Gainera lehen adierazi bezela, gabonetako otzarra oparituko dugu eta hiruileko bakoitzean giltzarri bat oparituko dugu. Giltzarri hori, hiruileko bakoitzean ezberdinak izango dira kolaboradore ezberdinak izango ditugulako. Gainera giltzarri bakarrak izango dira munduan. Hau da, gure bezeroak bakarrik izango dituzte horiek berrito, haien esklusibitate hori ikus dezaten beste guztiak.